

# Geletako Sagua eta Teklatua

Fakultateko geletan instalatuta dagoen Gyration sistema, sagu, teklatu eta hargailu batez osatzen da.

Sistema hau ondo ibiltzeko, bai sagua eta bai teklatura hargailuarekin bateratuak egon behar dira.

## HARGAILUA

Sistemaren hargailua pendrive baten antzekoa da. Botoi bat eta 2 led argi ditu. 2011ko martxorarte PCaren atzealdean egon bada ere, data horretatik aurrera eskura dago ordenagailuaren gainean.



## TEKLATUA

Teklatu hau normalak baina txikiagoa da baina azken hauen funtzio berdinak ditu. Gainera, multimedia artxiboak kontrolatzeko botoi berezi batzuk ditu eta interneten ibiltzeko beste batzuk.



Goian, ezkerrean hargailuarekin konexioa egiteko botoi bat eta egoera led bat ditu.

## SAGUA

Sagu hau berezia da: ukigune baten gainean erabiltzeaz gain, airean ere erabili daitekeelako. Mahai baten gaineko erabilera ohiko saguena da. Ordea, airean erabiltzeko, azpian duen botoia sakaturik mantendu behar da.

Honetaz gain, konexioa galtzen bada, berreskuratzeko botoia dauka azpialdean.



## TEKLATUA ETA SAGUA HARGAILUAREKIN BATERATU

Ordenagailua abiarazita, hargailuaren botoia(1) sakatu segundu pare batez.

Hargailuaren argia keinuka hasiko da. Sakatu orain teklatuaren konexio botoia (2) eta ondoren saguarena (3). Hargailuaren argiak keinuak egiteari utziko dio. Hiru gailuak bateratuta daude eta erabiltzeko prest.



Arazoa	Zergatia	Konponbidea
Teklatua ez dabil:	Teklatua itzalita dago.	"connect" botoia 7 segundutik gora sakatuta mantendu.
	Hargailuarekin bateratu gabe dago.	"Teklatua eta sagua hargailuarekin bateratu" sailean agertzen diren pausuk jarraitu.
	Pilak agortu dira.	Atezaintzatik teknikariari deitu. Arazoa pilena dela ziurtatuko du eta pila berriak ipiniko dizkio.
Sagua ez dabil:	1.- Konexio botoia sakatzean, saguaren azpiko led gorria keinuka pizten da.	Ez bada gehiago erabili behar armairuan dagoen bere oinarrian utzi kargatzen* Erabiltzea beharrezkoa bada, atezaintzan laguntza eskatu. Teknikari bat joango da batería aldatzera kargatutako beste bategatik.
	2.- Saguaren argi bat bera ere ez da pizten.	"connect" botoia 7 segundutik gora sakatuta mantendu.
	3.- Saguaren argiak pizten dira baina kurtsorea ez da mugitzen.	"Teklatua eta sagua hargailuarekin bateratu" sailean agertzen diren pausuk jarraitu.
	3.-Giroskopia aktibatu gabe dago.	Saguaren azpian dagoen giroskopioaren botoiari klik bikoitza egin.

\* Oso garrantzitsua da sagua karga oinarrian ongi ipintzea, saguaren bateria agortu egingo baita bestela. Sagua ongi kokatua dagoenean oinarriaren azpian dauden argi urdina piztuta egon behar da. Azpiko argazkietan lehenak ongi kokatutako sagu bat erakusten du, gainontzeko argazkietan kokatzeko modu okerrak azaltzen dira.

